

1. BALIO PROPOSAMENA



Jende asko eta askok, bizikleta normala erabiltzen dute beraien egunerokoan, baina erabiltzaile gehienek ez dute pentsatzen, bizikleta hori sortzerakoan eta material horiek eraldatzerakoan, ingurunean sortzen den kutsadura.

Kutsaduraren arazoari aurre egiteko, ideia bikaina iruditu zaigu egurrez egindako bizikleta elektriko bat sortzea. Egurra, material berriztagarria da eta ondorioz ingurumena zaintzen laguntzen du. Egia da, egurrak, beste bizikletetan erabilitako karbonoak baino pisu handiagoa duela eta horregatik bizikletaren erabilera erraztu ahal izateko, motor elektriko bat gehitzea ideia bikaina iruditu zaigu, bestela oso zaila izango bait litzateke bere erabilera.

Gure zerbitzuaren balore kuantitatiboa prezioa da, eta jakin badakigu altua dela, izan ere 6.000€tik 12.000€ tartean dago, baina produktuak eskaintzen duen balore kualitatiboei eskerrak, egurrezko bizikleta izatea, natura errespetatzen duen produktu bat izatea, erabiltzeko erraza izatea, irisgarritasun arazoak dituztenentzat irtenbide bikaina motore elektriko bat izatea, gure bezeroak prest daude produktua eskuratzeko.

Egurrez egindako bizikleta baten ezaugarriarik nagusia lehen aipatutakoa da baina ez da bakarra, beste hainbat abantaila ere baditu. Adibidez, egurrez eginda egoteaz gain estetika berezi bat eskaintzen du, eta bezeroaren nahiaren arabera bizikletaren neurria, pisua eta altuera pertsonalizatzeko aukera ematen du, baita egurraren itxura ere.

Egurra basoetatik atera dezakegu eta hau modu arduratsu batean erabiliaz, ekonomia zirkularra bultzatzen dugu, eta aldi berean pertsonen beharrak asetuz.

Transportatzeko erabil dezakegun beste modu batzuekin alderatuz, kotxea edo motorra adibidez, estresa murriztea eta bizi kalitatearen hobetzea ere ekartzen dizkigu, izan ere, trafiko eta aparkaleku arazoak saihesten ditugu.

Gure lehiakideetatik bereizten gaituena materiala eta bizikleta pertsonalizatua egiten ditugula da bereziki, egurrezko bizikletak eskaintzen ditugula.

